

Ipuin kontaketa eta apaingarri tailerra izango dira Urretxuko liburutegian

Datozen asteetan gabonetako parkea jarriko da martxan eta film emanaldiak izango dira

Urretxu. Datorren astean Gabonetako jarduerak izango dira herriko liburutegian, Udalak antolatuta. Asteartean, 17.30ean hasita, ipuin kontaketa saioa izango da. Asteazkenean, ordu berean hasita, haurrek Gabonetako apaingarriak egiteko aukera izango dute. Ostegunean Olentzero izango da liburutegian eta haurrek eskutitzak jasoko ditu. Ikazkina 18.30ean helduko da.

Ekitaldi hauez guztiez gain, Gazte Astea antolatu da. Haur eta gaztetxoentzat hainbat ekintza izango dira hilaren 26tik urtarrilaren 4ra, Urretxu eta Zumarragako udalen eskutik. 10 urte arteko haurrek Gabonetako parkea izango dute hilaren 26an, 27an eta 28an, 11.00etatik 13.00etara eta 17.00etatik 20.00etara, Urretxuko Ederrena pilotalekuan. Sarrera bi eurotan kobratuko da. Urtarrilaren 2, 3 eta 4an, berriz, film emanaldiak izango dira, 17.00etan hasita Zelai Arizti aretoan. Sarrera euro batean kobratuko da. Buka-tzeko, 11 eta 17 urte bitartekoentzat kirol txapelketak eta tailerrak antolatu dira. >a.z.